

Umoreaz



ARITZ GALARRAGA

Bitxia egin zait astero erlijiosoki irakurtzen dudan zutabegile bat, Jordi Llovet, gutxi-asko gai beraren inguruan bueltaka aritu dela ikustea azken asteetan. Eta gai hori, gainera, kutunetarik izatea, hain zuzen umorea. Vargas Llosaren umore txarreko adierazpen batzuk ekarri ditu, adibidez, zeinaren arabera garrantzitsuena ez litzatekeen askatasuna, baizik eta bozka egoki ematea; bozka PPri ematea, alegia. Javier Marías ere aipatu du, haren etengabeko umore txarra, zutabeetan erabiltzen duen tonu desatsegin, purrustari, kontentagaitza -harrigarria, bide batez, Ingalaterran bizi izan den eta Laurence Sterne *Tristram Shandy* espainierara itzuli duen batengan-. Gehien gustatu zaidana, halere, izango da Kataluniako umore falta mintzagai duena. Lloveten arabera, frantsesak ez dira ingelesak bezainbeste laketzen umoregintzan, umore grafiko eta idatzian; baina bai katalanak baino askoz gehiago, gerraurrean kontinenteko aldizkari satiriko moltso inportanteena zuen herrialdea. Hori da ez dituelako ezagutzen euskaldunak.

Umorea, ze gauza ezinbestekoa. Pentsa, Terry Eagletonek liburu oso bat eskaini dio. Eta ze gauza definitzen zaila, egon daiteke-eta galdera gaizto, arrazoiketa arraro, iradokizun maltzur, oztopo bat bertan behera utzi edo bueltan itzultzeko izan deza-kegun abilezian. Iruditzen zait, ordea, Isaac Barrowen definizio honetan sar daitekeela, oro har: umorea litzateke hitz egiteko modu lau eta xume bat, tupust kontzeptual adierazgarri baten bitartez imajinazioa hunkitu eta dibertitzen duena, harridura puntu bat erakutsi eta plazer moduko bat jariatuz. To eta no. Ezin uka, halere, umorea, edo eduki, edo ez daukazula. Satira politikoari buruz ari da Llovet: "beste behin ere, hori da guri falta zaiguna, seriotasun gehiegi daukagu, epika gehiegi, malgutasun gutxi, kexu gehiegi, biktimismo gehiegi". Kataluniaz dio, baina, *verge santíssima*, ezagutuko balitu, zer ez lukeen esango euskaldunez. ●



Euskara

Udaltzainei B2 maila eskatzeagatik helegitea jarri du CCOO sindikatuak. Bere hitzetan, "euskara ez dakitenak", "jakin arren ziurtatu ezin dutenak" eta "belarriprest"ak baztertzeko dituzte. Helegitea kritikatu du Euskalgintzaren Kontseiluak.

Sudan

Sudanen martxan zegoen trantsizio gobernuak desegin eta estatu kolpea jo zuten militarrek joan den aste hasieran. Demokraziarako trantsizioan, lider zibilak eta militarrek boterea partekatzen ari ziren, baina euren arteko tentsioa lehertu egin zen.

Bateragune

Abenduan Espainiako Auzitegi Gorenak ebatzi zuen berriz epaitu behar zirela Bateragune auziko auzipetuak. Defentsak helegitea aurkeztu zuen Konstituzio Auzitegian, eta honek ebatzi du epaiketa behin-behinean geratzea, helegitearen inguruan erabaki artean.